

Azterketa teorikoa

Examen teórico

| GALDERAK | PREGUNTAS |
|---|---|
| <p>1. ITC-BT-04 jarraibidearen arabera, zein da instalazio elektriko batek BTEEa betetzen duela egiaztatzen duen dokumentua?</p> <p>A) Proiektu elektrikoa B) Instalazioaren ziurtagiria C) Ikuskapenaren txostena</p> | <p>1. Según la ITC-BT-04, ¿qué documento acredita que una instalación eléctrica cumple el REBT?</p> <p>A) Proyecto eléctrico B) Certificado de instalación C) Informe de inspección</p> |
| <p>2. ITC-BT-05 jarraibidearen arabera, zein kasutan da nahitaezkoa hasierako ikuskapena?</p> <p>A) Etxebizitza guztietan B) Lokal industrialetan bakarrik C) Konkurrentzia publikoko eta potentzia handiko instalazioetan</p> | <p>2. ¿En qué casos es obligatoria la inspección inicial según la ITC-BT-05?</p> <p>A) En todas las viviendas B) Solo en locales industriales C) En instalaciones de pública concurrencia y potencia elevada</p> |
| <p>3. ITC-BT-06 jarraibidearen arabera, behe-tentsioko banaketa-sareak honelakoak izan daitezke:</p> <p>A) Airekoak bakarrik B) Lurpekoak bakarrik C) Airekoak, lurpekoak edo mistoak</p> | <p>3. Según la ITC-BT-06, las redes de distribución en baja tensión pueden ser:</p> <p>A) Solo aéreas B) Solo subterráneas C) Aéreas, subterráneas o mixtas</p> |
| <p>4. BTEEaren arabera, zein tentsio maximo jotzen da behe-tentsiotzat?</p> <p>A) 1.000 V korrante alternoan B) 1.500 V korrante zuzenean C) A eta B zuzenak dira.</p> | <p>4 ¿Qué tensión máxima se considera baja tensión según el REBT?</p> <p>A) 1.000 V en corriente alterna B) 1.500 V en corriente continua C) A y B son correctas</p> |

| | |
|--|---|
| <p>5. Zein elementu EZ da lotura-instalazioetakoa?</p> <p>A) Babes-kutxa nagusia B) Elikatze-linea nagusia C) Barne zirkuituak</p> | <p>5. ¿Qué elemento NO pertenece a las instalaciones de enlace?</p> <p>A) Caja general de protección B) Línea general de alimentación C) Circuitos interiores</p> |
| <p>6. BTEEaren ITC-BT-18aren 9. atalean adierazitakoaren arabera, lur-erresistentziaren balioa (ebaketa-gailu egokiekin batera, hala badagokio) gai izan behar da edozein masak kontaktu-tentsio hauek baino handiagoak ez eragiteko:</p> <p>A) 24 V lokal edo kokaleku eroalean, eta 50 V gainontzeko kasuetan B) 12 V lokal edo kokaleku eroalean, eta 24 V gainontzeko kasuetan C) 50 V lokal edo kokaleku eroalean, eta 75 V gainontzeko kasuetan</p> | <p>6. Según se indica en el apartado 9 de la ITC-BT-18 DEL REBT, el valor de la resistencia de tierra (junto con los dispositivos de corte adecuados, en su caso) será tal que cualquier masa no pueda dar lugar a tensiones de contacto superiores a:</p> <p>A) 24 V en local o emplazamiento conductor, 50 V en los demás casos B) 12 V en local o emplazamiento conductor, 24 V en los demás casos C) 50 V en local o emplazamiento conductor, 75 V en los demás casos</p> |
| <p>7. BTEEaren arabera, zer da elikatze-linea nagusia?</p> <p>A) Babes-kutxa nagusia(k) elikatzen duen (dituen) banaketa-sarearen instalazio-zatia B) Babes-kutxa nagusi bat berorrek elikatzen dituen banakako deribazioekin lotzen duen instalazio-zatia C) Babes-kutxa nagusia edo babes-kutxa nagusiak, horiek barne, erabiltzailearen barneko instalazioekin edo instalazio hartzaileekin lotzen dituen instalazio-zatia.</p> | <p>7. ¿A qué se denomina línea general de alimentación según el REBT?</p> <p>A) A la parte de instalación de la red de distribución que alimenta la caja o cajas generales de protección B) A la parte de la instalación que enlaza una caja general de protección con las derivaciones individuales que alimenta C) A la parte de la instalación que une la caja general de protección, o cajas generales de protección, incluidas éstas, con las instalaciones interiores o receptoras del usuario</p> |

| | |
|---|--|
| <p>8. BTEEaren arabera, zer da hargunea?</p> <p>A) Babes-kutxa nagusi bat berorrek elikatzen dituen banakako deribazioekin lotzen duen instalazio-zatia.</p> <p>B) Babes-kutxa nagusia(k) elikatzen duen (dituen) banaketa-sarearen instalazio-zatia.</p> <p>C) Babes-kutxa nagusia edo babes-kutxa nagusiak, horiek barne, erabiltzailearen barneko instalazioekin edo instalazio hartzaileekin lotzen dituen instalazio-zatia.</p> | <p>8. ¿A qué se denomina acometida según el REBT?</p> <p>A) A la parte de instalación que enlaza una caja general de protección con las derivaciones individuales que alimenta.</p> <p>B) A la parte de instalación de la red de distribución que alimenta la caja o cajas generales de protección.</p> <p>C) A la parte de instalación que enlaza una caja general de protección, o cajas de generales de protección, incluidas éstas, con las instalaciones interiores o receptoras del usuario</p> |
| <p>9. BTEEaren arabera, hornidura osagarria edo segurtasunekoa honela sailkatzen da:</p> <p>A) Sorospenekoa, erreserbakoa eta bikoiztua</p> <p>B) Normala, erreserbakoa eta sorospenekoa</p> <p>C) Larrialdikoa, gehigarria eta bikoiztua.</p> | <p>9. De acuerdo con el REBT, el suministro complementario o de seguridad se clasifica en:</p> <p>A) De socorro, de reserva y de duplicado</p> <p>B) Normal, de reserva y de socorro</p> <p>C) De emergencia, suplementario y doble.</p> |
| <p>10. BTEEaren ITC-BT-18aren arabera, adierazi zein izango den lur-hartuneez lurperatuta egon behar duten gutxieneko sakonera:</p> <p>A) 1,20 m.</p> <p>B) 0,50 m</p> <p>C) 0,30 m</p> | <p>10. Según la ITC-BT-18 del REBT, indicar cuál será la profundidad mínima a la que deben ir enterradas las tomas de tierra:</p> <p>A) 1,20 m.</p> <p>B) 0,50 m</p> <p>C) 0,30 m</p> |
| <p>11. BTEEaren arabera, elikatzeko linea nagusiak babesteko elementuak gordetzen dituzten kutxak – erabiltzaileen instalazioen jabetza non hasten den adierazten dutenak–, nola deitzen dira?</p> <p>A) Aginte- eta babes-kutxa nagusia</p> <p>B) Banaketa-kutxa nagusia</p> <p>C) Babes-kutxa nagusia</p> | <p>11. De acuerdo con el REBT, las cajas que alojan los elementos de protección de las líneas generales de alimentación y señalan el principio de la propiedad de las instalaciones de los usuarios, se denominan:</p> <p>A) Caja general de mando y protección</p> <p>B) Caja general de distribución</p> <p>C) Caja general de protección</p> |

| | |
|--|---|
| <p>12. BTEEaren ITC-BT-18 jarraibidearen arabera, besterik adierazi ezean, tentsioa kontrolatzeko gailuetarako lur-hartuneak eta babes-eroaleak direla-eta...</p> <p>A) Lurrerako hartune osagarriak elektrikoki lotuta egon behar du lurrera jarritako elementu metaliko guztiak (hala nola, metalezko eraikuntza-elementuekin, eroale metalikoekin, etab.)</p> <p>B) Lur-hartune osagarria konektatu egin beharko da babes-eroalera edo hari konektatuta egon daitezkeen elementuetara.</p> <p>C) Lur-hartune osagarriak elektrikoki independentea izan behar du lurrera jarritako elementu metaliko guztiak (hala nola, metalezko eraikuntza-elementuak, eroale metalikoak, etab.)</p> | <p>12. De acuerdo a la ITC-BT-18 del REBT, en lo relativo a las tomas de tierra y conductores de protección para dispositivos de control de tensión por defecto:</p> <p>A) La toma de tierra auxiliar debe estar eléctricamente unida a todos los elementos metálicos puestos a tierra (tales como elementos de construcción metálicos, conductores metálicos, etc.)</p> <p>B) La toma de tierra auxiliar se conectará al conductor de protección o a los elementos que puedas estar conectados a él.</p> <p>C) La toma de tierra auxiliar debe ser eléctricamente independiente de todos los elementos metálicos puestos a tierra (tales como elementos de construcción metálicos, conductores metálicos, etc.)</p> |
| <p>13. Erakustazoka batean, aldi baterako instalazio elektrikoan, zein tentsio esleituko zaie kanpoko instalazioetako kableei?</p> <p>a) 450/750 V eta erabilera arrunteko PVCzko estalkia.</p> <p>b) 0,6/1 kV.</p> <p>c) 450/750 V eta polikloropreno edo antzeko estalkia.</p> | <p>13. En la instalación eléctrica temporal de una feria de muestras, ¿qué tensión asignada tendrán los cables de las instalaciones exteriores?</p> <p>a) 450/750 V y cubierta de PVC de uso común.</p> <p>b) 0,6/1 kV.</p> <p>c) 450/750 V y cubierta de policloropreno o similar.</p> |
| <p>14. Etxebizitza batean, instalazio domotikoaren seinaleak transmititzeko diren eroaleei edo kableei dagokionez...</p> <p>a) Behe-tentsioko eroaleen hodi beretik igaro ahal izango dira, inolako baldintzarik gabe.</p> <p>b) Sistema domotiko baten seinale espezifikoak transmititzeko diren kableak eta behe-tentsioko kableak kanalizazio beretik doazenean, seinale-zirkuituko kableen isolamendu-maila aldameneko behe-tentsioko zirkuituen isolamendu-mailaren baliokidea izango da, izan isolamendu bakar batekin edo izan hainbat isolamendurekin.</p> | <p>14. Respecto a los conductores o cables destinados a transmitir señales de la instalación domótica de una vivienda:</p> <p>a) Podrán discurrir por el mismo tubo que los conductores de baja tensión sin condición alguna.</p> <p>b) Cuando los cables destinados a la transmisión de señales específicas de un sistema domótico discurran por la misma canalización que los de baja tensión, el nivel de aislamiento de los cables del circuito de señal será equivalente al de los circuitos de baja tensión adyacentes, bien en un único o en varios aislamientos.</p> |

| | |
|--|--|
| <p>c) Behe-tentsioko beste zirkuitu baten hodi beretik igaro ahal izango dira, baina ez dira isolatuta egongo hodian dauden zirkuituetatik esleitutako tentsio altuenerako, betiere sistema domotikoaren fabrikatzaileak zehaztaperen teknikoetan horretarako aukera ematen duenean.</p> | <p><i>c) Podrán discurrir por el mismo tubo que otro circuito de baja tensión pero no estarán aislados para la tensión asignada más elevada de los circuitos contenidos en el tubo, siempre que el fabricante del sistema domótico lo permita en las especificaciones técnicas.</i></p> |
| <p>15. Aldi baterako "stand"etako instalazio elektrikoetan, publikoari irekita dauden ekipamenduetan zeharkako kontaktuen aurkako babesa diferentzialen bitartez egingo da, eta diferentzial horiek esleituta izango duten gehieneko korrante diferentzial-residuala hau izango da:</p> <p>a) 10 mA. b) 100 mA. c) 30 mA.</p> | <p>15. En las instalaciones eléctricas temporales de stands, la protección contra contactos indirectos de los equipos accesibles al público se efectuará mediante diferenciales de corriente diferencial-residual asignada máxima de:</p> <p>a) 10 mA. b) 100 mA. c) 30 mA.</p> |
| <p>16. Lurpeko sare batean aluminiozko eroaleak erabili dira. Zein da arauzko sekzio minimoa?</p> <p>A) 6 mm² B) 10 mm² C) 16 mm²</p> | <p>16. En una red subterránea se han utilizado conductores de aluminio. ¿Qué sección mínima es la reglamentaria?</p> <p>A) 6 mm² B) 10 mm² C) 16 mm²</p> |
| <p>17. Kanpoko argiteriako lurpeko sareetan:</p> <p>A) Kableak 0,4 metro baino gutxiagoko sakoneran badaude, hodiepean instalatuko dira.</p> <p>B) Hodien barne-diametroa 60 mm baino txikiagoa izango da.</p> <p>C) Kableak hodiepean joango dira beti.</p> | <p>17. En las redes subterráneas de alumbrado exterior:</p> <p>A) Si los cables están a menos de 0,4 m de profundidad se instalarán bajo tubos</p> <p>B) El diámetro interior de los tubos será inferior a 60 mm</p> <p>C) Los cables irán siempre bajo tubo</p> |

| | |
|---|--|
| <p>18. Etxebizitzetako aginte- eta babes-koadro nagusian, baliteke etengailu orokorrik ez egotea honelako kasuetan:</p> <p>A) Etxebizitzaren instalazioan zirkuitu desberdinak ez daudenean hodi edo babes amankomunen azpian.</p> <p>B) Etengailu diferentziala dagoenean.</p> <p>C) Beti egon behar da etengailu orokorra.</p> | <p>18. En el cuadro general de mando y protección de las viviendas, se podrá prescindir del interruptor general:</p> <p>A) Cuando en la instalación de la vivienda no existan circuitos diferentes bajo tubos o protecciones comunes.</p> <p>B) Cuando exista interruptor diferencial.</p> <p>C) No se puede prescindir del interruptor general</p> |
| <p>19. Zer sekzio izan behar du babes-eroaleak faseen sekzioa 16 mm²-koa edo txikiagoa denean?</p> <p>A) Faseek duten berdina.</p> <p>B) Sekzioa ezberdina izango da eroaleak Cu-zkoak edo Al-zkoak badira.</p> <p>c) Faseak edo faseek duten erdia.</p> | <p>19. ¿Qué sección debe tener el conductor de protección cuando la sección de las fases es igual o menor a 16 mm²?</p> <p>A) Igual que las fases</p> <p>B) La sección depende de que los conductores sean CU o Al</p> <p>C) La mitad de fase o fases</p> |
| <p>20. ITC-BT-09 (Argiteria publikoko instalazioak) jarraibidearen arabera, baieztapen hauetatik zein da ZUZENA?</p> <p>A) Lur-sareetan, gutxienez lur-konexioko hiru elektrodo instalatuko dira 15 argi-euskarritik behin, eta beti linea bakoitzeko lehen euskarrian eta azkenean.</p> <p>B) Lur-sareetan, gutxienez lur-konexioko elektrodo bat instalatuko da 5 argi-euskarritik behin, eta beti linea bakoitzeko lehen euskarrian eta azkenean.</p> <p>C) Lur-sareetan, gutxienez lur-konexioko elektrodo bat instalatuko da 10 argi-euskarritik behin.</p> | <p>20. De acuerdo con la ITC-BT-09 “Instalaciones de alumbrado público”, ¿cuál de estas afirmaciones es CORRECTA?</p> <p>A) En las redes de tierra, se instalará como mínimo tres electrodos de puesta a tierra cada 15 soportes de luminarias, y siempre en el primero y en el último soporte de cada línea.</p> <p>B) En las redes de tierra, se instalará como mínimo un electrodo de puesta a tierra cada 5 soportes de luminarias, y siempre en el primero y en el último soporte de cada línea.</p> <p>C) En las redes de tierra, se instalará como mínimo un electrodo de puesta a tierra cada 10 soportes de luminarias</p> |
| <p>21. Instalazio elektrikoak baimentzeko, hauek beharko dira:</p> <p>A) Instalazio-ziurtagiria eta diseinuaren memoria teknikoa, kasu guztietan.</p> <p>B) Instalazio-ziurtagiria edo diseinuaren memoria teknikoa.</p> <p>C) Instalazio-ziurtagiria, beti.</p> | <p>21. Las instalaciones eléctricas requerirán, para su autorización:</p> <p>A) Certificado de instalación y memoria técnica de diseño en todos los casos</p> <p>B) Certificado de instalación o memoria técnica de diseño</p> <p>C) Certificado de instalación en todo caso</p> |

| | |
|--|--|
| <p>22. Instalazio baten kalifikazioa, haren ikuskapenaren emaitzaren arabera, honelakoa izan daiteke:</p> <p>A) Aldekoa, akats larririk edo oso larririk ez badago, ez eta 3 akats arin baino gehiago ere.</p> <p>B) Baldintzatua, akats larri bat edo 3 akats arin edo gehiago detektatzen direnean</p> <p>C) Negatiboa, gutxienez akats oso larri bat antzematen denean</p> | <p>22. La calificación de una instalación, dependiendo del resultado de la inspección de la misma, podrá ser:</p> <p>A) Favorable si no existe ningún defecto grave o muy grave, ni más de 3 leves.</p> <p>B) Condicionada cuando se detecte un defecto grave, o 3 leves o más</p> <p>C) Negativa cuando se observe al menos un defecto muy grave</p> |
| <p>23. Konkurrentzia publikoa duen lokal batean, larrialdi-argiek gunen batzuetan ez badute behar besteko argitasuna ematen, zein irizpen eman behar da?</p> <p>A) Aldekoa</p> <p>B) Baldintzatua</p> <p>C) Negatiboa</p> | <p>23. En un local de pública concurrencia, el alumbrado de emergencia no suministra la iluminancia requerida en algunas zonas. ¿Qué dictamen debe emitirse?</p> <p>A) Favorable</p> <p>B) Condicionado</p> <p>C) Negativo</p> |
| <p>24. Lurpeko linea batean, BTko eroaleak zenbateko distantziara mantendu beharko dira, gutxienez, gas-eroanbideetatik?</p> <p>A) 20 cm</p> <p>B) 0,20 cm</p> <p>C) 2 m</p> | <p>24. En una línea enterrada, los conductores de BT se mantendrán a una distancia mínima de las conducciones de gas de:</p> <p>A) 20 cm</p> <p>B) 0,20 cm</p> <p>C) 2 m</p> |
| <p>25. BTko banaketa publikoko sareek nola dute neutroa?</p> <p>A) Lurretik bananduta</p> <p>B) Zuzenean lurrera konektatuta</p> <p>C) Erresistentzia baten bidez lurrera konektatuta</p> | <p>25. Las redes de distribución pública de BT tienen el neutro:</p> <p>A) Separado de la tierra</p> <p>B) Puesto a tierra directamente</p> <p>C) Conectado a tierra a través de una resistencia</p> |

| | |
|--|---|
| <p>26. Kanpoko argiteriaren besoen edo zutabeen barruko instalazio elektrikoa eroaleen bidez egingo da; eroale horiek zenbateko tentsio izendatua izango dute?</p> <p>A) 0,4/0,6 KV B) 0,6/1 KV C) 750 V</p> | <p>26. La instalación eléctrica en el interior de brazos o columnas de alumbrado exterior se realizará mediante conductores de tensión nominal de:</p> <p>A) 0,4/0,6 KV B) 0,6/1 KV C) 750 V</p> |
| <p>27. Zenbateko sakoneran egon behar dute, gutxienez, kanpoko argiztapenerako elikatze-sareek?</p> <p>A) 60 cm B) 40 cm C) 50 cm</p> | <p>27. ¿A qué profundidad deben estar como mínimo las redes de alimentación para alumbrado exterior?</p> <p>A) 60 cm B) 40 cm C) 50 cm</p> |
| <p>28. Instalazio elektriko batean, non hasten da jabetza partikularra?</p> <p>A) Neurgailuan (kontadorean) B) Babes-kutxa nagusian C) Instalazioaren koadro nagusian</p> | <p>28. En una instalación eléctrica, ¿dónde empieza la propiedad particular?</p> <p>A) En el contador de medida B) En la caja general de protección C) En el cuadro general de la instalación</p> |
| <p>29. Lotura-instalazioak sinplifikatu al daitezke?</p> <p>A) Beti B) Inoiz ez C) Babes-kutxa nagusia eta neurgailuaren kokapena leku berean daudenean</p> | <p>29. ¿Se puede simplificar las instalaciones de enlace?</p> <p>A) Siempre B) Nunca C) Cuando coincida en el mismo lugar la Caja General de Protección y la situación del equipo de medida</p> |
| <p>30. Zer dira babes-kutxa nagusiak?</p> <p>A) Babes-linea nagusia barneko instalazioekin edo erabiltzailearen instalazio hartzaileekin lotzen dutenak. B) Elikatze-linea nagusien babes-elementuak gordetzen dituzten kutxak. C) Banaketa-sarearen instalazio-zatia izanda, babes-kutxa nagusia(k) elikatzen duena (dituena).</p> | <p>30. Se denominan cajas generales de protección:</p> <p>A) Aquellas que unen la línea general de protección con las instalaciones interiores o receptoras del usuario. B) Las cajas que alojan los elementos de protección de las líneas generales de alimentación. C) Aquella que formando parte de la instalación de la red de distribución alimenta la caja o cajas generales de protección</p> |

| | |
|--|--|
| <p>31. Elikatze-linea nagusien eroaleak honelakoak izan behar dira:</p> <p>A) "Cu" edo "Al"-zkoak B) Unipolarrak edo tetrapolarrak C) "PVC" edo "EPR"-zkoak</p> | <p>31. Los conductores de las líneas generales de alimentación serán:</p> <p>A) De Cu o Al B) Unipolares o tetrapolares C) De PVC o de EPR</p> |
| <p>32. Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?</p> <p>A) Ur-kanalizazio metalikoak lur-hartune gisa erabil daitezke, segurtasun-arrazoia direla medio. B) Lur-hartuneen sakonera ez da inoiz izango 60 cm baino txikiagoa. C) Lur-hartune gisa, lurperatutako hormigoizko armadurez osatutako elektrodoak erabil daitezke.</p> | <p>32. ¿Cuál de las siguientes afirmaciones es correcta?</p> <p>A) Las canalizaciones metálicas de agua pueden ser utilizadas como tomas de tierra, por razones de seguridad B) La profundidad de las tomas de tierra nunca será inferior a 60 cm C) Para la toma de tierra pueden utilizarse electrodos formados por armaduras de hormigón enterradas.</p> |
| <p>33. Barneko instalazioetan, potentzia-zirkuituak:</p> <p>A) Hodi independenteetan kokatu beharko dira B) Horietako batzuk hodi beretik instalatu ahal izango dira, eroale guztiak zirkuitu horiei eskatutako tentsio altuenerako isolatuta badaude C) Kanalizazioak ezin dituzu partekatu segurtasun-tentsio oso baxuko zirkuituekin</p> | <p>33. En las instalaciones interiores los circuitos de potencia:</p> <p>A) Deberán alojarse en tubos independientes B) Podrán instalarse varios de ellos por el mismo tubo, si todos los conductores están aislados para la tensión asignada más elevada de las exigidas a esos circuitos C) No puedes compartir las canalizaciones con circuitos de muy baja tensión de seguridad</p> |
| <p>34. Barneko instalazio elektrikoetan, konexioak honela egingo dira:</p> <p>A) Kutxa egokietan; horiek inoiz ez dute izango 40 mm baino gutxiagoko sakonera. B) Kutxa egokietan; horiek zirkularrak badira, gutxienez 60 mm-ko barne-diametroa izango dute. C) Aurreko erantzun biak zuzenak dira</p> | <p>34. En las instalaciones eléctricas de interior las conexiones se realizarán:</p> <p>A) En cajas apropiadas que no tendrán en ningún caso menos de 40 mm de profundidad B) En cajas apropiadas, que en caso de ser circulares tendrán un diámetro interior mínimo de 60 mm C) Las dos respuestas anteriores son correctas</p> |

| | |
|---|---|
| <p>35. Kanpoko Argiteria-instalazioen Efizientzia Energetikoaren Erregelamendua. Zein da horren xedea?</p> <p>A) Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoa ziurtatzeko prozesua ezartzea.</p> <p>B) Kanpoko argiteria-instalazioek zer nolako baldintzak bete behar dituzten ezartzea, hain zuzen ere gaueko argi-distira edo argi-kutsadura mugatzeko eta argi arrotza edo gogaikarria murrizteko, besteak beste.</p> <p>C) Kanpoko argiteria-instalazioek zer nolako baldintzak bete behar dituzten ezartzea, hain zuzen ere haien kalifikazio energetikoa E baino txikiagoa izan ez dadin.</p> | <p>35. El objeto del Reglamento de eficiencia energética en instalaciones de alumbrado exterior es:</p> <p>A) <i>Establecer el proceso de certificación de la eficiencia energética de las instalaciones de alumbrado exterior.</i></p> <p>B) <i>Establecer las condiciones que deben reunir las instalaciones de alumbrado exterior para limitar el esplendor luminoso nocturno o contaminación luminosa y reducir la luz intrusa o molesta, entre otras finalidades.</i></p> <p>C) <i>Establecer las condiciones que deben reunir las instalaciones de alumbrado exterior para que su calificación energética no sea inferior a E.</i></p> |
| <p>36. Kanpoko Argiteria-instalazioen Efizientzia Energetikoaren Erregelamendua non aplikatuko da?</p> <p>A) Instalazio berrietan, horien aldaketetan eta handitzeetan.</p> <p>B) Indarrean jarri aurretik zeuden instalazioetan, baldin eta, energia-efizientziari buruzko azterlan baten bidez, administrazio publiko eskudunak beharrezkotzat jotzen badu.</p> <p>C) A eta B erantzunak zuzenak dira.</p> | <p>36. El Reglamento de eficiencia Energética en instalaciones de alumbrado exterior, se aplicará a:</p> <p>A) <i>Las nuevas instalaciones, a sus modificaciones y ampliaciones.</i></p> <p>B) <i>Las instalaciones existentes antes de su entrada en vigor, cuando, mediante un estudio de eficiencia energética, la Administración Pública competente lo considere necesario.</i></p> <p>C) <i>Las respuestas A y B son correctas.</i></p> |
| <p>37. Arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, adierazi metodo hauetako zein EZ den neurri egokia deskarga elektrostatikoak saihesteko:</p> <p>A) Marruskadura-prozesuak ezabatzea edo murriztea.</p> <p>B) Ahal den neurrian, lainoztatzea eragiten duten prozesuak areagotzea.</p> <p>C) Karga har dezaketen materialak lurrera eta, beharrezkoa denean, elkarren artean lotzea, bereziki eroale edo elementu metaliko isolatuak.</p> | <p>37. Según el RD 614/2001 de 8 de junio, sobre disposiciones mínimas para la protección de la salud y seguridad de los trabajadores frente al riesgo eléctrico, indique cuál de los siguientes métodos NO es una medida adecuada para evitar descargas electrostáticas:</p> <p>A) <i>Eliminación o reducción de los procesos de fricción.</i></p> <p>B) <i>Aumentar, en lo posible, los procesos que produzcan pulverización.</i></p> <p>C) <i>Conexión a tierra, y entre sí cuando sea necesario, de los materiales susceptibles de adquirir carga, en especial de los conductores o elementos metálicos aislados.</i></p> |

| | |
|---|---|
| <p>38. INSHTren lan ekipoak erabiltzeko gidaren arabera, posible al da orga industrial jasotzaileak pertsonak jasotzeko erabiltzea?</p> <p>A) Bai, segurtasun-neurri egokiak dituen plataforma bat erabiliz erabil daiteke beti.</p> <p>B) Salbuespen gisa, segurtasun-neurri egokiak dituen plataforma bat erabiliz.</p> <p>C) Bai, beti</p> | <p>38. Según la guía de utilización de equipos de trabajo del INSHT ¿Es posible utilizar las carretillas industriales elevadoras para elevar personas?</p> <p>A) Sí, puede utilizarse siempre utilizando una plataforma con las adecuadas medidas de seguridad.</p> <p>B) Sí excepcionalmente utilizando una plataforma con las adecuadas medidas de seguridad.</p> <p>C) Sí, siempre.</p> |
| <p>39. 39/2015 Legearen 16. artikulua arabera, Administrazio bakoitzaren erregistroak eskaera, idazki edo komunikazio bat jasotzen duenean, zer atera behar du?</p> <p>A) Erlazionatutako administrazio-espediente osoaren kopia zigitatua.</p> <p>B) Erregistroa erabiltzeagatik tasen ordainagiria.</p> <p>C) Aurkezpena egiaztatzen duen jasotze-agiri bat, non sarrerako data, ordua eta zenbakia adieraziko diren.</p> | <p>39. De acuerdo con el artículo 16 de la Ley 39/2015, ¿qué debe emitir el registro de cada Administración al recibir una solicitud, escrito o comunicación?</p> <p>A) Una copia sellada de todo el expediente administrativo relacionado.</p> <p>B) Un justificante de pago de las tasas correspondientes por el uso del registro.</p> <p>C) Un recibo que acredite la presentación, incluyendo fecha, hora y número de entrada.</p> |
| <p>40. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikulua arabera, pertsona anitzeko organoei dagokienez, lege honen ondorioetarako, ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzeko pertsonak ordezkaturik daudenean:</p> <p>A) Gutxienez % 40.</p> <p>B) Gutxienez % 30.</p> <p>C) Gutxienez % 20.</p> | <p>40. De acuerdo con el artículo 3 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, por lo que respecta a los órganos pluripersonales, a los efectos de esta ley, se considera que existe una representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro miembros las personas de cada sexo están representadas:</p> <p>A) Al menos al 40%</p> <p>B) Al menos al 30%</p> <p>C) Al menos al 20%.</p> |

| Erreserbazko galderak | Preguntas de reserva |
|--|--|
| <p>E1. Honako argiteria hauek larrialdikotzat jotzen dira:</p> <p>A) Sorospen eta seinaleztapenekoak.</p> <p>B) Seinaleztapenekoak eta bikoiztua.</p> <p>C) Segurtasunekoak eta ordezkapenekoak.</p> | <p>R1. Se consideran alumbrados de emergencia:</p> <p>A) Los de socorro y señalización</p> <p>B) Los de señalización y el duplicado</p> <p>C) El de seguridad y el de reemplazamiento</p> |
| <p>E2. Segurtasun-argiak nahitaez jarri behar dira:</p> <p>A) Konkurrentzia publikoa duten lokaletako esparru guztietan.</p> <p>B) 100 pertsonatik gorako okupazioa duten konkurrentzia publikoko lokaletako esparruetan.</p> <p>C) Konkurrentzia publikoa duten lokaletako korridoreen elkargune guztietan.</p> | <p>R2. Es obligatorio instalar alumbrado de seguridad:</p> <p>A) En todos los recintos de los locales de pública concurrencia.</p> <p>B) En los recintos de locales de pública concurrencia cuya ocupación supere las 100 personas.</p> <p>C) En toda intersección de pasillos en locales de pública concurrencia</p> |
| <p>E3. Larrialdiko argiteria automatikoki elikatuko da:</p> <p>A) Gehienez ere 0,15 segundoko iraupeneko mozketarekin.</p> <p>B) Gehienez ere 15 segundoko iraupeneko mozketarekin</p> <p>C) Gehienez ere 0,5 segundoko iraupeneko mozketarekin</p> | <p>R3. La alimentación del alumbrado de emergencia se realizará de forma automática:</p> <p>A) Con corte de 0,15 segundos de duración como máximo</p> <p>B) Con corte de 15 segundos de duración como máximo</p> <p>C) Con corte de 0,5 segundos de duración como máximo</p> |
| <p>E4. Azoka, erakusketa eta antzekoen aldi baterako instalazioetan:</p> <p>A) Instalazio osorako obra-zuzendaritza amankomun bat dagoenean, instalazio partzialen dokumentuak bateratu ahal izango dira, eta dena batera aurkeztu autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean.</p> <p>B) Muntaiak errepikatuak eta berdinak direnean, 1. instalazioa erregistratu ondoren, diseinuaren dokumentazioa ez da derrigor aurkeztu behar ondoz ondoko muntaketetan, urtebeteko epean, baldin eta aldaketa nabarmenik ez badago.</p> <p>C) Bi erantzun horiek zuzenak dira.</p> | <p>R4. En las instalaciones temporales de ferias, exposiciones y similares:</p> <p>A) Cuando exista una dirección de obra común para toda la instalación, podrán agruparse las documentaciones de las instalaciones parciales y presentarse de una sola vez ante el órgano competente de Comunidad Autónoma.</p> <p>B) Cuando se trate de montajes repetidos idénticos, una vez registrada la 1ª instalación se podrá prescindir de documentación de diseño, en montajes sucesivos en el plazo de 1 año, siempre que no se produzcan modificaciones significativas.</p> <p>C) Ambas respuestas son correctas.</p> |

E5. Zein etengailu magnetotermikok babesten du 2,5 mm²-ko sekzioa?

- A) 2x25 A
- B) 2x20 A
- C) 2x16 A

R5. ¿Qué interruptor magnetotérmico protege la sección de 2,5 mm²?

- A) 2x25 A
- B) 2x20 A
- C) 2x16 A